

Ordizian, 2015eko azaroaren 16an, Udaletxe honetako batzar-aretoan bildu zen TOKIKO GOBERNU-BATZARRA, Ohiko bilkuran. Honakoak bertaratu ziren:

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA: José Miguel Santamaría Ezeiza.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Angelica Moreno Heras	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako EH Bildu
Mila Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	Euskal Sozialistak-Socialistas vascos

BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK: Inor ez.

IDAZKARIA: Iker Rocandio Etxeberria

Bertaratu da, ere, gonbidatu gisa eta bozkatzeko eskubiderik gabe, Carlos Gonzalez, Ordizia Irabazi taldeko ordezkaria.

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK

- 1.- 2015eko urriaren 19ko bilkurako akta onartzea.
- 2.- Fakturen berri ematea.
- 3.- Hondakinen kudeaketa (norberak proposamenak aurkeztea)
- 4.- Zenbait txosten eta eskaera.
- 5.- Galde-eskeak.

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 15:36

AMAIERA ORDUA: 16:41



Lehendakari jaunak eman dio hasiera saioari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

1.- 2015eko urriaren 19ko bilkurako akta onartzea.

Akta zirriborroari gehikuntza hau egin zaio, 3. puntuaren amaieran (Kudeaketa plana): "*Adostu da bilera bat egitea, gaia jorratzeko.*"

Aho batez onartu da, aipaturiko aldaketa txertatu ostean.



2.- Fakturen berri ematea.

6000.- €-tik gorako fakturak. Guztira: 81.669,82.-€

6000.€-tik beherako fakturak. Guztira: 175.825,54.-€

Jakinaren gainean.



3.- Hondakinen kudeaketa

Angelica Morenok proposamen bat aurkeztu du, Ingurumen Teknikariak jorratua. Hondakinak biltzeko sistema ezberdinen artean erabaki beharra dago. Kontsulta bat egin aurretik, parte-hartze prozesu bat jarriko da martxan. Lehen fase batean, aukeratu beharko litzateke zaborrontzien eta atez ateko bilketaren artean. Bigarren fase batean gehiago zehaztuko litzateke sistema.

Eztabaidatu da Madrilgo Gobernuari galdetzea beharrezkoa den ala ez. Talde politikoek ahalik eta azkarren ekarriko dute beraien iritzia gai honi buruz.

Eztabaidatu da faseei buruz: ia galdera gehiago landu beharra dagoen edo sistemari buruzko zehaztasunak kontsultaren ondoren etorriko diren.

Erabaki da galdera eta balizko bi erantzunak zehazten joatea bakoitza bere aldetik eta datorren astelehenean bilera berri bat egitea.



4.- Zenbait txosten eta eskaera.

Auziak: Idazkariak hauen berri eman du:

- 303/2015. Asfaltos Urretxu enpresak atzera egin du jarritako errekurtsioan (Barrena parkea asfaltatze-obrarekin lotua) eta auzia artxibatu egin da.



- 411/2015. Juan Maria Agirre jaunak bere lurrekiko ebazpen bat errekurritu egin du.

Gai arrunten batzordea: Idazkariak azaldu du batzorde hau ezabatzea ezin dela oposizioko talde politikoek Udalbatzarrari egindako proposamen baten ondorio izan, alkateari soilik baitagokio proposamen hori egitea. Hortaz, zentzu horretan onartu zen proposamenak ez du eragin zuzenik Udalaren eraketan.



5.- Norberak lekarkeenak.

Iñaki Dubreuilek dio Udalak erabaki behar duela Drogodependentziekiko plan berriarekin bat egiten duen ala ez.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.